

DIRULAGUNTZAK EUSKARA IKASTEKO ETA EUSKARAZ TREBATZEKO

Zer laguntzen da deialdi honen bidez?

- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak (HABEk homologatutako zentroetan egindakoak); ikastaroaren matrikula eta asistentzia.
- Gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egitea.
- Unibertsitatean uda eta opor sasoian egindako euskarazko ikastaroak.

Zein baldintza bete behar ditut?

- 16 urte edo gehiago izatea ikastaroaren hasieran (ziklomotorretarako gidabaimenaren kasuan 14 urte beteta izatea).
- Gernika-Lumon erroldatua egotea edo *Hitzargune* programako kide den erakunde bateko langilea edo bazkidea izatea.
- Izena emandako euskaltegian amaitzea ikastaroa.
- Dirulaguntza eskatzen den urratserako edo ikastarorako aurretik beste dirulaguntzarik jaso ez izatea.
- Asistentziagatik dirulaguntza jasotzeko, %70eko asistentzia betetzea.

Noiz egin behar dut eskabidea?

Ikastaroan matrikulatu eta hilabeteko epean edota ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean.

Zein dokumentu aurkeztu behar dut?

- Eskabide-orria beteta.
- Asistentziagatik dirulaguntza jasotzeko, euskaltegiak egindako ziurtagiria.
- Matrikulatutako euskaltegiko ikaslearen fitxa.
- Matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Kasua balitz, langabetu txartela edo egiaztagiria.
- Lanean ari direnentzako, azken errenta aitortpenaren fotokopia.
- Erroldatua izan ezean, HITZARGUNE kanpainako erakundeko langilea edo kidea deneko egiaztagiria.
- Unibertsitate mailako ikastaroa bada, erakundearen ziurtagiria eta ikaslearen fitxa.
- Gidabaimenaren kasuan, azterketa euskaraz egiteari buruzko ziurtagiria.

Non aurkeztu behar ditut dokumentuak?

- Aurrez aurre: herritarrentzako arreta zerbitzuan (HAZ).
- Modu telematikoa: Udalaren web orrian, [tramiteak atalean](#).

Oharra: Aita Villasante Udal Euskaltegiko ikasleek ez dute asistentziagatik dirulaguntza jasotzeko eskubiderik, bertan eskaintzen delako beka sistema.

